

ZM

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako herrialdizkaria
72. aldea • 2021eko azaroa

BEGO REGULEZ

Zorrotzako liburutegiko arduraduna

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!

www.comerciantes-zorrotza.com



bertso afaria ²⁰/₂₁

ABENDUAK 3, OSTIRALA

Alboka jatetxea. 21:30ean

20:00etan **TRIKIPOTEOA** El 10 de Fray Juan tabernatik

Oihana Bartra



Aitor Mendiluze



MENUA

15 €

Entsalada mistoa
eta ahate gibel erdi eginda.

2. platera (izena ematean aukeratzeko):
Solomoa patata eta piperrekin
ala
hanburger beganoa.

Postrea:

Izozkia (esnegaina, txokolatea, banilla ala marrubia aukeran).

Ogia, ura eta urteko ardoa.

Izena emateko: aek euskaltegia

Telefonoz: **944 414 920 / 663 080 976** (Lekua agortu arte).

* Izena ematean ordaindu beharko da eskuan edo transferentzia bidez
eta menuko bigarrena eta postrea aukeratu behar da

Eta Euskararen Eguna gutxi ez eta...
berbalagunon topaketa

ABENDUAK 10, OSTIRALA

El 10 de Fray Juan tabernan. 18:00etan

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Babeslea:



FEVE trenbidea lurperatzeari buruzko informazio-azterlana egiteko epea bete da

sarrera



Zorrotzako herri aldizkaria
72. alea. 2021eko azaroa

f @ZorrotzMorrotz
t @zorrotzmorrotz
e zmorrotz@gmail.com

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez
Zuriñe Vila

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramirez de la Piscina



Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du.

Edukia erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira

Urrian bete zen hogeita lau hilabete-ko epea FEVEko trenbide-pasaguneak lurperatzeari buruzko informazio-azterlana egiteko. Informazio horren zain gaudenez, eragile guztiekin harremanetan jarri gara. Informazioa oso garrantzitsua da, eraikuntza-azterketa eta ondorengo obrak garatzeko prozesu burokratikoaren parte baita.

Beste aldetik, orain beteko da Aldundiak Euskal Erroten jabea eraikinaren mantentze-lanei ekiteko emandako epea. Adi gaude gai honen inguruan: jabeek betetzen ez badute, Diputazioak berak hartu beharko lukeelako mantentze-lan horren ardura, modu subsidiarioan.

Aipatu behar da, halaber, joan den irailean Auzo Elkartearen Batzar Orokorra egin genuela, eta bertan elkartearen lanaren eta lortutako aurrerapenen berri eman genuela. Horri dagokionez, oso garrantzitsua iruditu zitzaigun parte-hartze maila altua, nahiz eta pandemia-egorran jarraitu. Era berean, honekin lotuta erne ibiltzeko deia egin nahi dugu. Egia da aurreko olatuetan baino hobeto gaudela, baina, kezkaz ikusten dugu azken egunotako kutsatutakoen gorakada.

Honez gain, gai asko daude jorratzeko, beraz, elkartek jarraituko du martxan dauden hainbat zeregin lantzen.



IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarri

Jai-Alai
kafetegia

Abaro estrata. 12
94 490 12 59

SAZ
OKINDEGIAK

Zorrotzako
labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfno. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46

KZ Guneak zerbitzuak erdira murriztu dituela salatu du Auzo Elkarteak

ZORROTZ MORROTZ

Auzo Elkarteak salatu duenez, Konekta Zaitetz Guneako zerbitzuaren erabiltzaile ugari elkartearengana jo dute zerbitzuen murrizketa iragarri zaiela esanez. Zehazki, murrizketa hori %50ekoa izango da, gaur egun eskaintzen diren 160 ordutik 80ra pasatuta, eta arratsaldeko eskaintza oro ezabatuta. Momentuz, erakundeen isiltasuna baino ez duela jaso adierazi du Auzo Elkarteak: “Ez Eusko Jaurlaritza, proiektuaren kudeatzaile gisa, ezta Udala



ere, ikastaroak ematen diren zentroaren arduradun gisa, ez dira azalpenak emateko agertu”.

Lotsagarritzat jo du elkarteak teknologia berrietako prestakuntza erdira murriztea, “edozein kudeaketa-mota modu telematikoan egitea eskaintzen ari zaigun garai honetan”, eta murrizketa honek arrakala digitala areagotzen duela salatu du. Horregatik, aurretik zegoen goizeko eta arratsaldeko ordutegia berrezartzeko eskatu dute.

Parte-hartze bidezko aurrekontuetan Zorrotzarako aurkeztutako lau proiektuetatik bi gauzatuko dira

ZORROTZ MORROTZ

Bilboko Udalaren ekitaldi honetako parte-hartze bidezko aurrekontuetan Zorrotzarako aurkeztu ziren 4 proiektuetatik bi aukeratu dira udalerri osoko biztanleek egindako bozketen ondoren, eta ondorioz, datorren urtean gauzatuko dira. *Zorrotzako nerabeen ongizate psikologikoa lantzeko* programa, 15.000 euroko aurrekontua duena, hirugarren atera zen bozketan, 888 boto bilduta. *Gizarte- eta hezkuntza-mailako esku-hartzea adingabeekin Zorrotzako Zazpi Landa ingurunean* programa ere txertatuko da Udala aurrekontuetan. Egitasmo honen aurrekontua 10.000 eurokoa da, eta 603 boto jaso zituen.

Bestalde, “Zorrotzgoiti amestuz” belaunaldien arteko plaza Zorrotzgoitin A8 errepide azpiko plaza berriro diseinatzeko proiektua edo *Urteurrena Clara Campoamor* bere heriotzaren 50. urteurrena dela-eta Clara Campoamor kalean esku-hartze artistikoa antolatzeko ekimena, aurrekontutik kanpo geratuko dira,

parte-hartze bidezko aurrekontuen udal-ekimenaren barruan sartzeko behar adina boto jaso ez dituztelako, hurrenez hurren 392 eta 369 bozka jasota.

Irizpide, bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren arabera, 34 proiektu hautatu ziren guztira. Horietatik, 14 izan dira bozkatuenak 2 milioi eurora iritsi arte. Herritarrek proposatutako eta aukeratutako proiektu hauek Bilboko 2022ko aurrekontu orokorretan sartuko dira, Parte-hartze Bidezko Aurrekontua deritzon programaren barruan.

Bozketa-aldian, irailaren 16tik 26ra bitartean, 18.064 boto jaso ziren, guztira, 3.270 bilbotarrengandik. Bakoitzak nahi adina proposamen hauta zitzakeen, aurrekontu parte-hartzaileetarako ezarritako gehiengo zenbatekoa (2 milioi euro) gainditu barik. Boto-emaile gehienak, % 60, emakumeak izan dira, eta, adinarean arabera, 41 eta 50 urte bitartekoak izan dira boto gehien eman dutenak.

Frai Juan ikastetxe publikoa hobetzeko obrak burutu ditu Bilboko Udalak

ZORROTZ MORROTZ

Ikastetxeetan oporraldia zela baliatuz, udan hainbat obra burutu ditu Bilboko Udalak Fray Juan ikastetxean: hobekuntzak egin dira ikasleen eta irakasleen aldagelatan; gune estali berri bat egin patioan, eta patioa bera handitu; hobetu egin da irisgarritasuna ikastetxeko sarreretan; eta kokaleku berria eman zaie idazkaritzari, atezaintzari eta zuzendaritzari, arreta eraginkorragoa eman ahal izan dezaten. Guztira, Udalak 481 mila euroko inbertsioa egin du ikastetxean, obrak amaiturik Juan Mari Aburto alkateak Eusko Jaurlaritzaren Bizkaiko hezkuntza ordezkariarekin batera urrian ikastetxera egindako ikustaldi batean emandako datuen arabera.

Ikasleen aldagelak beste leku batera eraman dira, gimnasioaren ondora ekarrita, lehen urrunago baitzeuden. Orain, ikasleek nahiz irakasleek erosoago eta gertuago izango di-

tuzte. Bestalde, aldagela lekuz aldatu-rik, espazio libre bat sortu da aurreko leku hura baliatuz, eta patio barruko gune estali bat eratu da ikasle txikientzat, euria egiten duen egunetan, estalpean egon daitezen, edota eguzkiak zakar jotzen duen egunetan, gerizpea izan dezaten.

Bildu, handitu eta berritu egin dira irakas-kuntzaz besteko langileen aldagelak. Era berean, handitu egin da atarte estalian ba-liagarri zegoen eremua, eta ikasleek, hartara, leku handiagoa izango dute patioan.

Sarbideetan, kendu egin dira mailak, eskaile-rak, eta lehendik ziren arkitektura-oztopoak, larrialdietako ibilgailuak eta mantentze-la-netakoak eskola esparruaren barrura sartu ahal izateko. Halaber, ikastetxeko atezaintza, idazkaritza eta zuzendaritzarako guneak be-rantolatu dira.

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

ESKAINITZA PROGRESIBOETAN

ARMAZOA + KRISTALAK GOI-GAMAKOK

265€

Sustapena indarrean +4,00 eserako eta -2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18

ibarretaluxury
OPTICA ★



BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC





Kiroldegiko atletismo pista berritu dute

ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako kiroldegiko atletismo-pista hobetzeko eta berritzeko lanak amaitu dituzte azkenik. Urriaren erdialdean inauguratu zen iazko irailerako iragarrita zegoen ekipamendu berritua.

Bilbao Kirolak udal sozietatearen bitartez, ekipamenduko zoladura eta berotze ariketak egiteko guneko belar artifiziala aldatu du Bilboko Udalak. Gainera, kirol modalitate honen ohiko ekipamenduak hobetu dira, hala nola oztopoak eta jauzietako oholak. Halaber, zintarri berri bat jarri da, eta pistako marka, margo eta seinaleak berritu dira.

Aitor Mendiluze eta Oihana Bartra arituko dira abenduaren 3an izango den Bertso Afarian

ZORROTZ MORROTZ

Iaz behartutako geldialdiaren ostean, bueltan dator urtero Euskal Txokoak antolatutako ohi duen Bertso Afaria. Aitor Mendiluze eta Oihana Bartra bertsolariak lagun ospatuko dugu aurten Euskararen Eguna Zorrotzako euskaltzaleok. Gutxi balitz bezala, Arkaitz Estiballes bertsolaria gai-jartzaile arituko da.

Data borobila aukeratu du aurten Euskal Txokoak urtero arrakasta handia izaten duen ekintza hau ospatzeko, eta abenduaren 3rako, Euskararen Egunerako hain zuzen ere, iragarrita dago ekintza hau. Mahaiaren inguruan bilduko diren bertsozaleek izena

Udalak 455.000 euro baino gehiagoko inbertsioa egin du, Parte Hartze Bidezko Aurrekontuen Programan sartuta. Era berean, eta kiroldegian gauzatutako obra hauei esker, saneamendu-sarean garbiketa-lanak ere egin ahal izan dira.

Saski eraisgarri berriak

Kiroldegietako saskibaloijokalekuan saski eraisgarri berriak ipini dira. Zeharka ezarritako saskiak dira, pabiloi batean aldi berean 3 entrenamendu egiteko modua ematen dutenak. Horrela, hobeto baliatuko dira instalazioak eta erabiltzaile gehiagori emango zaie zerbitzu.

eman behar dute aurretik AEK euskaltegian. Afaria Alboka jatetxean izango da 21:30ean, eta 15 euro ordaindu behar da. Lehenago, iluntzeko 20etatik poteoan aritzeko deialdia dago El 10 de Fray Juan tabernatik abiatuta, eta trikitilariak lagunduta.

Berbalagunon topaketa

Euskararen Eguna aitzakia, Bertso Afaria ez ezik, hurrengo ostiralean, abenduaren 10ean eta arratsaldeko 18etan, Berbalagunon Topaketa ere antolatu du Euskal Txokoak El 10 de Fray Juan tabernan. Euskaraz aritzeko eta ondo pasatzeko asmoa duen edonor gonbidatuta dago ekintza honetara.

TXOKO FEMINISTA



Gizarte guztietan emakumeek gizonak baino aukera gutxiago dute beren bizitzako alderdi estrategikoei buruz erabakitzeko. Diskriminazio testuinguru honetan, guztiz beharrezkoa da emakumeen ahalduntzea bultzatzea: *“Ahalduntzea emakumeen prozesu indibidual eta kolektiboa da; horren bidez, genero diskriminaziozko testuinguru batean, beren ahalmenak, gaitasunak, estrategiak eta protagonismoa garatzen eta indartzen dituzte, bizitza pertsonal nahiz sozialaren alderdi guztietan*

modu autonomoan jokatu ahal izateko,” (Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegia. 2020).

Prozesu honen bitartez, emakumeak beren gizarte-harremanen testuinguruan ahalduntzen dira, generoen arteko botere-harremanak zalantzan jarri maila indibiduallean, etxeko eremuan, gizarte-egituretan eta espazio publikoan. Gainera, berdintasuna lortzeko baliabideak (materialak, psikologikoak, intelektualak eta ideologikoak) eskuratzen dituzte, haien bizitzari buruzko erabakiak hartzeko eta gizarte mailako aitorpena jasotzeko.

SALAKETA ARGAZKIA

Trenbidea lurperatzea oso premiazkoa da

Beste istripu bat trenbide-pasagunean. Zorionez, eta une horretan jende gehiago zegoelako, oraingoan ez da ondorio latzik izan. Estherren kasua (ale honetako erreportajearen eta iritzi-atalean) oso larria da, eta trenbide-pasagunearen egoeraren etengabeko jarraipena egitearen beharra argi islatzen du; izan ere, zuloak estaltzeko errailen ondoan zementua bota duten arren, trenak eta trafikoak berriro agertzea eragiten dute. Baina batez ere, kasu berri honek geltoki hau lehenbailehen lurperatzeko premia nabarmendu du berriro.



MADNESS KAFETEGIA
 Elena eta Javier
 Zalbidea estraza, 5 - atzea
 ZORROTZA
 48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

LASTER

Elektrizitatea
 elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
 LARRIALDIK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
 ZORROTZA 48013

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
 Clara Campoamor, 6
 48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
 Menu bereziak (enkarnez)
 Eguneko menua

// Andaluzian Euskal Herriari eta euskaldunei buruz esaten diren topiko guztiak gezurrak dira //



FRANCISCO MANUEL CAPOTE

Jaiotokia: Zuheros

(Cordoba, Andaluzia)

Noiztik: 2016. urtetik.

Adina: 32 urte.

Lanbidea: Ostalaria.

Duela 5 urte heldu zen Francisco Manuel Zorrotzara. Gaur egun bere emaztea dena ezagutu eta 2018ko abenduan “Bar El Cordobés” izeneko abenturari hasiera eman zion. Auzoan oso gustura dagoela aitortu digu eta momentuz denbora luzez geldituko da gure artean.

IBAI BARRIOS

¿Noiz eta nola heltzen da kordobatar bat Zorrotzara?

Nire herrian, aitarekin lan egiten nuen erai-kuntza arloan. Duela bost urte, sektoreak pairatutako krisia dela medio, aldaketa bat behar nuela erabaki eta hemen nire osaba-izebak bizi direnez, ez nuen bitan pentsatu eta hona etortzea otu zitzaidan.

¿Nola gogoratzen dituzu zure lehenengo egunak hemen?

Egun zailak izan zirela gogoratzen dut. Hasieran bakarrik sentitzen nintzen, bazterturik. Hango eta hemengo giroa oso desberdina da. Euskalduna berez lehenengo momentuan hotzagoa da andaluziar batekin alderatuz. Baina ezagutzen duzun heinean zintzoagoa dela aitortu dezaket.

¿Zer da hemen gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Dena gustatzen zait. Itxuraz eta izatez, nire jatorria eta gaur egun bizi naizen lekua oso desberdinak dira. Dena den, hemen bizi naizenez geroztik konturatu naiz Andaluzian Euskal Herriari buruz esaten den guztia topikoak direla.

Nola sortu zen auzoan taberna bat zabal- tzeko aukera?

Nire emazteak komentatu zidan lokal bat libre zegoela prezio onean. Orduan erabaki nuen abentura honi ekitea.

Badirudi ostalaritza Covid-aren aurreko “normaltasunera” itzultzen ari dela...

Neurri batean bai baina oraindik asko gelditzen da. Krisiak gogor kolpatu du sektorea eta nire kasuan Covid-a heldu baino pixka bat lehenago taberna alokatuta izatetik eroslea izatera pasa nintzen. Baina Zorrotzan jendea fidela da eta beharrezkoa denean erantzuten du.

Auzoko ekimenetan parte hartzea gusta- tzen zaizu?

Bai, ahal dudan heinean bertako ekintzetan parte hartzea gustatzen zait.

Euskara ezagutzen duzu? Ikastea gustatu- ko litzaizuke?

Pixkana-pixkanaka saiatzen ari naiz. Tabernako bezeroekin praktikatzea gustuko dut.

Zure herrira sarri joaten zara? Zer da faltan gehien sumatzen duzuna?

Bai, urtean behin joaten naiz, uda partean. Den-dena faltan dut: familia, lagunak, nire herria...

Zure herrira bueltatzea gustatuko litzaizu- ke edo hemen betirako gelditu?

Ez, hemen gelditzeko asmoa dut. Momentuz azken urteetan bezala, behin itzuliko naiz bisitan. Gainera hemengo eguraldia nahiago dut, kar, kar.



“ Hemengo jendea
hasieran hotzagoa baina
gerora zintzoagoa dela
esango nuke

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

LASTER

Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOA
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarantz)
Eguneko menua

Harrapatuta geratu zen auzokide batek 50 mila sinadura bildu ditu trenbide pasagunea konpontzeko eskatuz

Esther García, gorpil-aulkian mugitzen den bizilagunak, 50 mila sinadura baino gehiago bildu ditu ADIFI trenbide-pasagunea konpontzeko eskatzeko; aulkia trenbidean trabatu ondoren, trena datorrela adierazten duten hesiak jaisten hasi ziren.



AINARA GARCÍA

Esther García Monedero, esklerosi anizkoitz duen eta gurpildun aulkia elektrikoa erabiltzen duen gure auzokidea, uztailearen 5ean FEVEko trenbide pasagunean trabatuta gelditu zen hesiak jaisten ari zirela. Zorionez, bi pertsonak besoetan hartu zuten eta hiru garren batek aulkia jaso zuen ¿baina inork ez balu bere deia entzun? Hau ez da istripu bakarra, txirrindulari eta ume kotxetxo ugari trabatu direlako, eta pasaguneak eragindako hildakoak ere ezin ditugu ahaztu.

Momentu horretan, Esther bere kabuz ADIF-ekin kontaktuan jarri zen, baina ez zuen inolako erantzunik jaso. Hilabete gutxi batzuk geroago Fekoar elkartearen laguntzarekin *Change.org* webgunearen bidez eskakizun bat bidali zuten, bertan egoera konpondu edo behintzat lurzorua zolatzeko eskaera zabaldu zuten. Eskaera hau (ZMeko ale honetako 21. orrialdean irakur dezakezu) plataforma digitaletan hedatu da, eta komu-

nikabide gutxi batzuek ere oihartzuna eman zioten. Gaur egun 50.000 sinadura inguru lortu ditu Estherrek eta gehien sinatutakoen artean kokatzen da.

Zoritarrez egoera ez da gehiegi aldatu. ADIF-ek ez dio Estherri inolako erantzunik eman eta Fekooreko irisgarritasun arduradunak jasotako erantzunaren arabera, hori ez da ADIF-en eskuduntza, RENFERena baizik. RENFEk ere ez du inolako erantzunik hartu. Eta Udalera jo zutenean, udal agintariek eskuduntza falta agudiatu zuten.

Badirudi azken asteetan trenbide pasagunean legarra ipini dutela zuloak ixteko, baina trenen mugimenduarekin eta trenbideak gurutzatzen dituen errepidearen trafikoaren ondorioz, legarra ez da beharreko lekuan gelditu eta zuloak berriz agertzen ari dira.

Estherren borroka honetan Fekoar elkarteak laguntzen ari da. Elkarte honek urte ugari



darama irisgarritasunararen arloa lantzen eta honen inguruko aldarrikapenak egiten. Borroka latza da, egoera hauek konpontzeko benetako ardura duten pertsonekin kontaktatzea ia ezinezkoa omen delako eta askotan “erantzun ereduak” baino ez dituztelako jasotzen.

Badirudi bai ADIF bai RENFE geltokia lurperatzeko obrari itxaroten ari zaizkiola zerbait egiteko. Baina honek ez du Esther lasaitzen. “Lurperatzeko obrak 2023. urtean hasteko akordioa dago eta 2025. urterarte ez omen dira bukatuko. Eta zer egin urte hauetan zehar? Zer egin dezakete auzokideek tren pasagunea segurtasunez igarotzeko, mugikortasun urriko pertsonentzat bereziki mingarria izanik?”

**Azken egunotan legarra
bota duten arren,
trenak eta trafikoaren
ondorioz, zuloak berriro
agertzen ari dira**

Zentzu honetan, oso esanguratsua da Fe-kooreko Irene Diazek aipatutakoa: “Gaur mugikotasun urrikoak, bihar edonor”. Guz-tiontzako ongizate eta segurtasun kontua da hau, zalantzarik gabe. Eta gertaera honek pasabidearen egoeraren etengabeko kontrola beharrezkoa dela, eta batez ere, trenbidea lurperatu behar dela agerian utzi du berriro.

ehbildu

**egiteko
beste
modu bat**



ASKABIDE
kultur elkarte
zorrotza

BEGO REGULEZ

Zorrotzako
liburutegiko
arduraduna

// Hauxe izan da nire lehen lana eta hemen jubilatzea gustatuko litzaidake //

Gure auzoko lehen liburuzaina
-eta bakarra- dugu Bego Regulez.
Hogeita bost urterekin hasi zen
lanean, Zorrotzako lehen udal
liburutegia ireki zenean. Denbora
luze horretan liburutegiak lau
kokaleku ezagutu ditu, iraultza digital
bat eta pandemia bat. Maskara
azpitik bere-berezko irribarre
atsegina ezin kendurik, lehengo eta
oraingo garaiak konparatu dizkigu.



“Oraingo liburutegia hobekuntza nabaria izan zen auzoarentzat

Noiztik daramazu Zorrotzako liburutegiko arduradun?

Hogeita bost urte nituela hasi nintzen lanean hemen, 1990. urtean. Geografia eta Historiako ikasketak burutu eta gero ikaskideekin batera lana bilatzen hasi ginen, artean irakasle sartzea ez baitzen erraza. Orduan, Bilbon bi lanpostu behar zirela topatu genuen, liburuzain aritzeko. Izena eman eta berehala deitu ninduten, Zorrotzako lehen liburutegia irekitzeko.

Non zegoen liburutegi hori eta nolakoak izan ziren haren hastapenak?

Don Claudio jatetxetxe zaharreko eraikinean, oraingo kiroldegia dagoen lekuan. Bertan Zorrotzako lehen udal bulegoa ireki zuten eta horren ondoan, liburutegia. Gela txiki-txiki bat zen, apenas bi mahai eta apalategi bat sartzen ziren! Bigarren egunerako liburuak ailegatu zitzaizkidan Bidebarrietatik, oso liburu zaharrak ziren; horiekin osatu nuen auzoko lehen bilduma.

Hain txikia izanda, berehala beteko zen...

Bai, hala da. Goizez, batik-bat, nagusiak etortzen ziren egunkariak irakurtzera eta arratsaldez, berriz, umeak, etxeko lanak egitera. Hantxe ibiltzen nintzen ni beraiekin, eskolako lanekin laguntzen...

Eta handik nora aldatu zen liburutegia?

Bi urte geroago, oraingo Gaztegunea eta Haurgunea dauden lekura mugitu ginen. Han askoz leku handiagoa geneukan baina apalategiak berehala bete zitzaizkidan! Hasieran, liburu berri bat heltzean zigilu bat jarri eta horren erregistroa egiten zen. Baina bilduma handitzearekin batera, liburutegian etiketak jartzen hasi ginen, alea apalatan topatzeko lagungarri. Kokaleku berri horretan mugimendu handia zegoen, gazte jendearena batez ere. Izan ere, ondoko gelan Audiotekea zegoen, ikus-entzunezko jarduerak egiteko. Kaleko kartela ere guk egin genuen, eskuz!

Eta handik kiroldegiko eraikinera, ezta?

Bai, 1997an kiroldegia ireki zuten eta udalategia eta liburutegia bertara joan ziren. Liburutegia dezentetatu zen eta orduan hasi ginen liburuaren erregistroa digitalizatzen: barra-kodeak jarri ziren eta maileguak ordenagailutik kudeatzen hasi ginen. Horrez gain, liburutegia handiagoa izanda, helduak ere etortzen hasi ziren, batik-bat irakurtzera eta ikastera. Eta orduan ika-mikak hasi ziren, gazteek elkarrekin egiten zituztelako lanak eta zarata sortzen zutelako. Hortaz, laster leku hori ere txiki geratu zitzaion auzoari.



“Iraultza digitala gorabehera, jendeak ez dio liburuak maileguan hartzeari utzi

“Pandemia kolpe latza izan da, kostatuko da lehengo ohiturak berreskuratzea

Horrek oraingo kokalekura garamatza...

Hala da, 2002an oraintxe gauden tokira ekarri zuten liburutegia. Aldaketa izugarria izan zen: umeentzako irakurketa-gela, ikas-teko eta taldeko lanak egiteko gelak, ordenagailuak... Hobekuntza nabaria izan zen. Orduan lankide bat ere jarri zidaten, atezaina bera, eta ordutik biak batera gabiltza liburutegia kudeatzen.

Egia da leku berri batera mugituko dela liburutegia?

Badirudi Auzo Etxe berria eraikitzeko asmoa duela udalak, nagusien egoitzaren alboan, eta liburutegia hara eramango dutela. Ea ikusten dudan!

Zer nolako eragina izan du iraultza digitalak liburutegiko egunerokoa?

Ez dugu gehiegi nabaritu, ez bada entziklopedia, hiztegi eta horrelakoen erabileran; Internetek desagerrarazi ditu. Bestela, jendeak ez dio liburuak maileguan hartzeari utzi,

ezta egunkariak irakurtzeari ere. Umeekin liburuak irakurtzera ere etortzen dira asko eta asko. Horrez gain, filmak eta diskak erosten jarraitzen dugu eta harrera ona daukate oraindik, filmek batez ere. Eta kontsulta gelako ordenagailu finkoak asko erabiltzen dira oraindik.

Goazen pandemiari buruz hitz egitera... Nola eragin du liburutegiaren erabileran?

Kolpe latza izan da. Hasteko, liburutegiak itxita egon ziren 2020ko ekainera arte. Ondoren, ireki egin genuen baina maileguetarako bakarrik, ezin zen inor sartu. Alegia, atarian mahai bat geneukan eta handik liburuak jaso eta eman egiten genituen. Jendeak aurretiko zita eskatu behar zuen eta eskatu beharreko liburuak katalogo digitalean zegoen aurrez begiratu behar zuten. Guk erabaki genuen jendea hitzordurik gabe artatzea, jendea ez baitago ohituta katalogo digitala erabiltzera. Horrela hama-bost egun eman genituen.

// Eleberri historikoa eta intrigazkoa ditut gustukoenak //

Hainbeste urte liburu artean, liburu kuttunenik izango duzu, ezta?

Zaila da niretzat liburu bakarra aukeratzea. Bakarra aukeratzekotan, agian *El perfume* esango nuke, oso istorio berezia iruditzen zaidalako. Eta *Goizuetako Ezkongaiak* ere aipatuko nuke, euskaraz irakurri nuen lehen eleberria izan zelako.

Eta idazle bat gomendatu behar bada zein hautatuko zenuke?

Nire lehenetasunen artean eleberri historikoa eta

intrigazkoa daude; beraz, Ken Follet eta Jon Arretxe gomendatuko ditut.

Irakurtzeaz aparte, beste zaletasun aipagarririk al duzu?

Irakurtzea da nire zaletasun handiena, eta pena da behar beste denborarik ez izatea nahiko nukeen guztia irakurri ahal izateko.

Bukatzeko, zer esango zenieke auzotarrei?

Eskerrik asko urte hauengatik guztiengatik. Eta liburutegira itzultzeko, hemen zuen zain gaudela.



Eta gero?

Geroago, liburutegira sartzen utzi zuten baina edukiera murriztuarekin. Mahai bakoitzean lagun bakarra, ordenagailuak ezin erabili, umeen irakurketa-gela ere ez... Eta liburuak berrogeialdian eduki behar genituen erabilerara bakoitzaren ostean! Hasieran hamabost egunez, gero zortzi egunez. Liburuen koarentarekin 2021eko irailera arte ibili gara!

Alarma-egoera desagertu da, normaltasunera itzuli zarete?

Murritzketak desagertu dira eta pixkanaka -pixkanaka jendea liburutegira berriro etortzen hasi da, batez ere liburuak maileguan

hartzera, baina oraindik jende gutxi gertzen da liburutegian bertan irakurtzen, lanak egiten... Kostatuko da lehengo ohiturak berreskuratzea.

Nolakoa izan da zure esperientzia Zorrotzan urte hauetan guztietan?

Itzela, oso pozik nago auzo honekin. Lehenengo momentutik jendea, auzoko elkar-teak... liburutegiarekin oso inplikatura egon dira eta asko lagundu didate. Liburutegitik pasa diren nire umeak ere ez dauzkat ahazteko, hortxe ditut eskegita egin zizkidaten marrazkiak! Hemen jubilatzea gustatuko litzaidake.

*Regalos
Omega*
oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalles.com



ZORROTZA F.C.
*kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!*



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



AGENDA

Urriak 24 asteazkena

18:00 Liburuaren aurkezpena + sinadura.

ARITZA BERGARA:

“Jentilak, Erraldoi hilezkorrak”

Lápices liburudendan.

Urriak 30 asteartea

18:00 Liburuaren aurkezpena + sinadura.

ASIER SAINZ:

“Imajinatu Bilbao Imagina”

Lápices liburudendan.

abenduak 3 ostirala

20:00 Trikipotea.

El 10 de Fray Juan tabernatik.

21:30 Bertso afaria.

AITOR MENDILUZE.

OIHANA BARTRA.

Gai jartzailea: **Arkaitz Estiballes.**

Alboka jatetxean. 15 euro.

Izena emateko: AEK euskaltegian.

*Plaza mugatuak!



abenduak 10 ostirala

17:30 BERBALAGUN TOPAKETA.

El 10 de Fray Juan tabernan.

abenduak 18 larunbata

12:00 Liburuaren aurkezpena + sinadura.

NOELIA LORENZO PINO

Lápices liburudendan.

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (abendua-urtarrila) iragartzeko, **zmorrotz@gmail.com** helbidera idatzi azaroaren 10a baino lehen.



Doneaneko alaba

Juan Kruz Igerabide

Alberdania. 2021. 252 orrialde.



Hamar urte geroago Madrilgo eguzkipean Juan, Josetxo, Fer eta Estebanekin elkartuko da Lur. Zeru horrexek egiten die aterpe liburu hau osatzen duten bederatzi narrazioei, non azalduko diren trenbide ondoko prozesionariak, manolitekin ibiltzearen urradurak, lo den haurra hilko balitz zer galdetzen duten hizketa gurutzatuak, bulegoetako estoldak eta ke arrosa. Kondizio sozialaren konkretzioez, elkartasunaren, lehiaren eta karitatearen artekoiez, arrotzaren aurreko izuaz zein dantza-gogoaz, familia loturez, beldurraz eta epikaz —arrosaz zein klase ertainarenaz— ari dira Uxue Apaolazaren ipuinok. Ironiaz zorroztu ditu egileak, euri xeheak bezala leun baina osorik blaitzen duen eguneroko indarkeria sarri antzemanezina atzemanetz.



Zea Mays: “Kemena”

(Garden Records) 2021



“Negua joan da ta” dio Errekaldeko taldearen abesti oso ezagun batek. Bada, bi abestiz osaturiko “Kemena” lan berria uda bukatu eta egun gutxira kaleratu zuen Zea Maysek. Udaberrian aterra zuten “Adore” proiektuaren oinordekoa dela esan dezakegu. Laukotearen azkenengo disketan ohikoa den moduan, autoekoizpenaren bidetik berriro ere.

Katalunia aldera jo dute, Santi Garcia ekoizle famatuaren estudioetara. Ultramarinos Costa Brava izeneko estudioan grabatu eta nahastu dira “Inondik inora” eta lanaren titulu bera daraman abestia. Azken honekin bideoklip ikusgarria landu dute gainera. Sentimenduz beteriko kanta, dantzarako ere aproposak direnak. Azala ere txukuna, aurrekoetan bezala Fortunek egina.

Baina lan berriak suposatzen duen poztasunak albiste txar bat ekarri digu azken asteetan. Aiora Renteria taldeko abeslariari ebakuntza bat egin behar izan diote uteroan minbizi bat diagnostikatu ondoren. Oholtzatik aldentuta bada orain lasaitasuna eta inoiz baino gehiago kemena behar ditu. Hemendik agur bero bat!

IBAÍ BARRIOS



PINTXOTAN



SANTER TABERNA

Ordutegia:

Astelehenetik ostegunera:

7:00-23:00

Ostiraletan: 7:00-1:00

Zorrotzabaso, 13.

Telefonoa: 94 441 54 16

Facebook: Santer Zorroza

Cachopo Santer

Zailtasun maila: Ertaina.

Prezioa: 19,45 euro 2 pertsonarentzat.

Osagaiak: 2 haragi-xerra, urdaiazpikoa, gazta, baratxuria, piperbeltza, irina, arrautza, ogi birrindua, olio eta gazta. Patatak eta piperrak garnizio.

Gatzaz eta piperbeltzez ondu behar ditugu bi haragi-xerrak. Erdian, urdaiazpikoa eta gazta sartzen diegu. Hurrengo pausua, irina, arrautza eta ogi birrindutik pasatzea izango da. Birrineztatu ondoren, 200.C labekatu behar dugu gorritu arte. Azkenik, patatak eta piperrekin garnizionatzen dugu.



Afariak ostiral
eta larunbatetan

Etxeko berezitasuna:
katxopoa.

Telefonoa: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAIZPI LANDA



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75

Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75

Telefonoa: 94 442 17 12

cafe txinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak

Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



Seida lantegia

MANU COBO

Ez da harritzekoa Euskal herrien automobilen eta industria-ibilgailuen fabrikazioan lekua egiten saiatu izana, galdarak, lokomotorrak, itsasontzien kaskoak, industria-motor handiak eta abar fabrikatzen ebazan enpresa handiak baiegotzan. Kamioientzako motorrak eta bastidoreak ekoizteko saiakerak oso laburrak ziran. Euskadi laster bihurtu zen Hispano-Suitza, Ford eta General Motors Peninsular bezalako marka handietarako osagaien hornitzaile. Bere modeloak ere eraiki ziran, Naval-Somua markako kamioiak eta autobusak kasu, Sestaon (Bizkaia) eginak pieza frantsesen laguntzaz 1929tik aurrera, eta urte batzuetan unitate asko saltzea lortu eban.

Setra seida auzoko lantegi indartxu beti izan da hirurogei hamarkadan. auzoari nazio arteko ospea zabalduz, autobus alemandar, indartxuek, egiten, kamioiek aparte. Barreiros (gero Frantzeseko renaultek erosi ebana..., pegaso ta hanbeste....). 1980 hamarkadean Kastrora eroan ebien, bertoko beharginek hara mugiarazten... gaur egun martxan dabil ondino, Samano auzoan.

1935ean Chryslerren Seida Dogerekin mihizatzen hasi zan, Zorrotza Bizkaiaiko lantegi berri batean, Bilboko kaletan. 1969. urtera arte, Chrysler Europa enpresa erosi eban Barreiros enpresak.



Espainiako Gerra Zibilaren ondoren, Seidak kamioiak egiten jarraitu eban, eta 1942tik aurrera autobusentzako karrozeriak ekoizten hasi zan, Metalbloc enpresagaz berba emode. Lehenengo unitateek Klockner, Hispano Suitza eta Humboldt-Deytz plataformak erabili ebazan, aurrerago Pegaso. 1950eko hamarkadan, Seida Espainiako merkaturako buru zan, Metalbloc karrozeria erabat metalikoez. Orduan Seidak Pegasoren fabrikatzaile Enasak gomendatutako karrozeria bihurtu zuen.

Kässbohrer enpresarekiko konexioa 1963an egin zan, Setra modeloak S14 eta S10 modeloak, Pegaso motorra daben autosostengu egitura ekoizteko lizentzia kontratu batez. Unitateak Setra Seida y Pegaso markan merkaturatzen ziran. S14 izan zan 12 metro luze eta hamalau eserleku ilara ebazan lehen autobusa, ordutik aurrera normalizatu zirenak



eta autobusak akrtualtasunean estandarrak dabezanak. 55 plaza gehi gidaria. Merkatuan balio handia izatearen beldur izatea, autobus haiek arrakasta handia izan ebazan Espainiako merkatuan, Seidak Vigon bigarren solairua ireki eban lekuan, García Barbón 50-56.

1963an, Zorrotzan, Bilbotik gertu, egoitza dauen Seida karroza-enpresak negoziozio gogorren ondoren lortu eban Espainian Setra autobusak ekoizteko lizentzia. S14 izan zan Espainiako lurretan 1965etik aurrera ekoiztitako marka honen lehen ibilgailua. Espainiako Setra S14 Seidatarren leuntasun nagusia aurreko aldean Alemanian egindako bertsioen 'K' aren ordeztu egoan ikurrazan, Pegasoren zaldi zuriaren irudia, Enasa espania konpainia baitzan Seida mekanikoez hornitzen ebana autobusak motorizatzeko.

Setra Seida S14

Espainiako Setra autobusak erraz bereizten ziran. Pegasok egindako ibilgailu guztietan, zaldiak eskuinera begiratzen dau, baina Se-



tra-Seidatarren kasuan, Enasak eginbako ibilgailuak ziranez, zaldia beste aldera begira egoan. Alderdi mekanikoan, S14 Seidarako 9103 motako Pegaso diesel motorra erabili zan, ZF espezialistak sinatutako zortzi abiadurako kanbio-kaxa bati lotutako 170 CV-ko potentzia dauen sei zilindro lineako. Seidak Setra S10 ere ekoizti eban. Setra S14 autobusen arrakastari esker, Seidak bigarren lan-tegi bat inauguratu eban Vigon. Beren flotak Setra S14 ibilgailuekin hornitu ebazan konpainia nazionaletak gidariekin beren ontasun anitzak nabarmendu ebazant.



**ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

Lokala eta unibertsala

Frantsesa ikasten hasi naiz. Bai, bai, Molière-ren hizkuntza bera, ahots kordak larritasuneraino behartzen dituen lengoi hori. Frantzia, gazta eta ardoa, akordeoi doinuak Parisko kaleetatik. Artistak eta zelai bareak. Arrazoa, demokrazia, elkartasuna, Frantses Iraultza. Oh mon ami! Zein hizkuntza eder, ahaltsu, noranahikoa. Zein hizkuntza zibilizatua, munduaren trostan aritua, urrezko bolalumen lehengai, mihi zorrotzen erregai. Ikasge-lan denak dira zalantzak, hizkuntzaren gorenera iritsi nahia, errefinamendu mailara egokitzeko saia-kerak. Ikasten gaudenotatik gehienak plazer hutsez ari garela esango nuke, ez titu-luaren bila soilik, alegia.

Aditz konjugazioez bete-tako arbelera begira hasi naiz pentsatzen, ea gelako ikasle prestuetatik zenba-tek jakingo duen euskaraz. Aurreiritzi handiekin juz-gatua, lepoa jokatu nuke %10 baino gutxiagok heldu diola euskarari frantsesari heldu dion modu berean. Zenbaiten irudiko, izan ere, frantsesa gauza uniber-tsala da; euskara, osterak, lokala. Euskara Euskal He-rriko hizkuntzetako bat da, zaharra, misterietsua eta bitxia. Dudarik gabe irau-



ASIER URKIZA

“Euskararik ez dakienak herri honen errealitatearen (handiagoa nahi genukeen) puska handia galtzen du

narazi beharrekoa, museo-tako apaletan arkeologia pieza arkaiko gisa aurkez-teko baino ez bada ere. Hala eta guztiz ere, ezin frantsesarekin konparatu, beste enbor bateko ezpala da hura. Hortxe, tragedia hiru ekitalditan. Errua ez da euskaldunona, jakina, baina ezta gelako gizon-emakumeena ere. Pertzep-zio kontua da, alajaina. Aldez edo moldez, Barakal-doko Hizkuntza Eskolan A2 mailan frantsesa ikasteko izena eman duten gehie-nek hurbilago sentitzen dute frantsesa euskara baino, edo bestela, pres-tigio handiagoa ematen diote lehenengoari, ohar-kabea, akaso. Hizkuntza osoa da frantsesa beren begietan. Euskara, triki eta pandero doinuez zipritin-dutako hitz sorta. Eta hori guztia espainola ekuazioan sartu gabe (ariketatxoa

etsiegia suerta ez dadin). Eta hori guztia lan-merka-tuan garrantzia erabatekoa duen ingelesa ekuazioan sartu gabe (idem).

Bizi-koordinaden gauzak dira hauek. Ez gaitazen engaina, ordea. Ez dira eta ausazkoak koordinadok, moldatuak eta nahi erara itxuratuak baizik. Errea-litate gordina paratzen digute begien aurrean, edozein kasutan. Honai-no nola iritsi garen beste kontu bat da. Egiturazko arrazoiak daude tartean eta alferrik da hau eta hura seinalatzen ibiltzea. Kokapenaren aferak beste geruza batzuk ere hartzen ditu. Non kokatzen zaren, horren araberrakoa da ingu-ruaz beraganatuko duzun ikusmira. Erpina. Aingura. Oinarria. Aingura euska-raren herrian kokatzeak etxean sentitzera eraman zaitzake Barakaldon, Azpeitian, Lesakan edo Zi-burun. Espainolez ari dena ere etxean sentituko da Nojan, Burgos edota Extre-maduran, botako du baten batek. Arrazoa. Baina euskaraz ari dena horietan guztietan ere senti daiteke etxeko. Eta Mancheste-rren, La Platan, Sydnein. Euskararik ez dakienak herri honen errealitatearen (handiagoa nahi genu-keen) puska handia galtzen du. Frantses eskolak bere aisialdi ordu murrizteta-jasotzen dituen bitartean, galdu ere.



Trenbidean trabatu zen nire gurpil-aulkia eta tren batek harrapatuta hiltzeko zorian egon nintzen

Esther García dut izena, esklerosi anizkoitza dut eta gurpil-aulki elektrikoan ibiltzen naiz. Uztailaren 5ean, FEVEko trenbide-pasagunea zeharkatzen ari nintzenean, nire aulkiaren gurpiletako bat trenbidean trabatuta geratu zen. Orduantxe jaitxi ziren trena hurbiltzen ari zela ohartarazten zuten hesiak. Oso urduri jarri nintzen eta laguntza eskatu nuen oihuka.

Bizirik nago bi pertsona hurbildu zirelako, besoe-tan hartu, eta salbu jarri nindutelako. Bitartean, hirugarren pertsona bat gurpil-aulkia trenbidetik ateratzeaz arduratu zen trena igaro aurretik. Baina une horretan inor ez balitz handik pasatu? Hil egingo ninduen trenak.



ESTHER GARCÍA

“Ezin hitzekin azaldu tren batek ia harrapatu ninduenean izan nuen larritasuna. Ekidin ditzagun tragedia gehiago!

Mesedez, sinatu Change.org plataforman irekitako nire eskaera ADIFI eskatze-ko lehenbailehen konpon ditzala trenbidearen alde horretako kalteak. Egunero arrisku larria dago. Eta berriro gerta zitekeen, zoladura berdin egon baitzen zenbait hilabetez. Halaber, duela bi urte, hemendik gertu, adineko bi emakume

hil ziren beste trenbide-pasagune batean. Ekidin ditzagun tragedia gehiago, mesedez!

Ez da ADIFera jotzen dudan lehen aldia. Izua gorputzean, ezbeharraren biharamunean gutun bat bidali nien. Trenbidearen zorua konpontzeko eskatu nien, eta behin eta berriz esan nien ez dela han gertatzen den lehen istripua, arriskutsua dela bizikletan, gurpil-aulkiarekin edo haurtxoen autoekin ibiltzen direnentzat. Baina ez dut erantzunik izan. Hala ere, ziur nago nik bakarrik eskatu beharrean, zurekin eta nire eskaera sinatuko duten milaka pertsonekin batera bada, ADIFek entzun egin beharko digula azkenean. Eta baita erantzun ere.

Ematen du ADIFek trenbideak lurperatuko dituela, baina lanak, teoriarik, 2023an hasi eta 2025ean amaituko dira. Ezin dugu hainbeste itxaron jakinda tragediai gerta daitezkeela. Presazkoa da! Sinatu eta zabaldu, mesedez!

<https://labureus/esthergarcia>



PICOS
burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86

AUTO ESKOLA
KAIKU



Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

Iragar zaitez

ZM
ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com



Lápices
LIBURUDENDA



Untziola kalea, 8
ZORROTZA



Irene

Ez dut uste. Adibidez, gu Gabonak ospatzeko lekuren bat alokatzen saiatu gara eta guztia beterik dago... Jendea modu handian ospatzeko irrikitan dago!



Isa

Murritzketak ipini ipiniko dituzte, baina ez dut uste pasaden urtekoak bezain zorrotzak izango direnik.

NAROA PEÑA ETA IRATZE PÉREZ

Gabonak eta pandemia:

Neurri murriztaileak ezarriko dituztela uste duzu??



Elena

Gabonetan aske utziko gaituzte, baina urtarilean neurri murriztaileak ezarriko dituztela esango nuke, ospakizunengatik sortu daitezkeen kasu berriak direla eta.



Jagoba

Bai, seguru nago. Egunerokotasunean jendeak ez ditu neurriak aintzat hartzen eta seguru kasuek gora egingo dutela.



Esti

Betidanik izan ditugunak bezalakoak izango dira. Murritzketak ezartzen badituzte, urtariletik aurrerakoak izango direla uste dut.

Vía gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenúa

El 10 de Fray Juan

Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkarriak eta afariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbolak, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

Bilbon euskaraz



Bilbao

www.bilbaeuskaraz.eus

iKasi
Mi Kasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe



IKASTALDE EBALDEA

Pinadia ebaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com



IKASTALDE EBALDEA

Ikastalde ebaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 428 01 36
☎ 94 428 01 37
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.jeszorrotzabhi.hezkuntza.net

Autorako Mailegu berdea



**Garapen jasagarria
aukeratzen dutenentzako onurak.**



**Kontratatu
oraintxe:**



Informazio gehiago:
www.kutxabank.es

